

1- ENTZUN AURRETIK

1.1 Dantza egin nahi duzu?

Jarri talde txikian eta komentatu:

- Zu diskotekara **joaten zara?**
- **Ez, ez naiz** diskotekara **joaten**.
- Ni bai. Ni Txitxarrora **joaten naiz**.
- **Eta zer edaten duzu?**
- Nik kalimotxo **edaten dut**.

Bildu datuak eta koadroa bete, adibidean bezala:

Izena	Diskoteka	Edaria
<i>Nahiara</i>	<i>Rock Star</i>	<i>Gin-tonica</i>

2- ENTZUN BITARTEAN

2.1 Zertan ari dira?

Entzun audioa eta aukeratu erantzuna::

Lehen zatian zertan ari dira?

- Barran ordaintzen
- Aurkezpenak egiten
- Denak dantzan
- Berriketan

Eta bigarren zatian?

- Barran ordaintzen
- Aurkezpenak egiten
- Denak dantzan
- Berriketan

Eta hirugarrenean?

- Barran ordaintzen
- Aurkezpenak egiten
- Denak dantzan
- Berriketan

2.2 Nork ordainduko du?

Entzun berriro audioa. Erantzun galderei eta adostu erantzunak:

Noiz dago giro ederra diskotekan? <input type="checkbox"/> - Egunero <input type="checkbox"/> - Asteburuetan <input type="checkbox"/> - Ostiraletan	Zer da Oier? <input type="checkbox"/> - Neskazalea <input type="checkbox"/> - Parrandazalea <input type="checkbox"/> - Dantzazalea	Nork ordainduko du? <input type="checkbox"/> - Mariak <input type="checkbox"/> - Josuk <input type="checkbox"/> - Denen artean
--	---	---

2.3 Zer falta da?



Hemen daukazu audioaren transkripzioa, baina hitz batzuk kendu ditugu. Saia zaitez hutsuneak betetzen. **OHARRA:** Hitz guztiak gai baten ingurukoak dira. Zein da gai hori?

ZERBITZARIA.— Kaixo, Josu. Koadrila galanta ekarri duzu ----(1)---- diskotekara!

JOSU.— Bai, Maria, pisukide guztiak. Zaila izan da, baina parranda pixka bat egiteko garaia zen! Hemen dituzu: June, Amaia, Oier eta Alex.

JUNE.— Kaixo! (muxu)

AMAIA.—Kaixo! (muxu)

ZERBITZARIA.— ----(2)----!

ALEX.— Pozten naiz!

OIER.— Giro ederra duzue diskoteka honetan!

ZERBITZARIA.— Bai, baina ----(3)---- bakarrik!

Bueno, zer jarriko dizuet?

JOSU.— Niri kalimotxo! Eta Alexi eta Oierri ere bai, ezta?

ALEX.—Bai!

ZERBITZARIA.— Eta zuei?

AMAIA.— Niri vodka laranjaekin!

JUNE.— Eta niri tekila bat!

ZERBITZARIA.— Primeran, ----(4)---- ekarriko dizkizuet edariak!

JOSU.— Bazen garaia! ----(5)---- ez gara atera bostok elkarrekin?

ALEX.— Amaiaren ongi etorriko festatik, nire ustez.

OIER.— Josu, zergatik ez diguzu diskoteka hau ----(6)---- erakutsi? Hemen giro aparta dago. Buelta bat ematera noa!

AMAIA.— Uf! Eskerrak alde egin duen! Oierrek neskak bakarrik ditu buruan.

JUNE.— Mutil jatorra da, neska.

JOSU.— Bueno, bueno... dantza pixka bat egingo dugu? Goazen pistara!

ALEX.— Bai, baina itxaron ----(7)----, edariak ekarri arte.

JOSU.— Ados, baina ----(8)----, giro bikaina dago eta.

ZERBITZARIA.— Hemen dituzue edariak!

AMAIA.— Zenbat da?

ZERBITZARIA.— Hamalau euro.

AMAIA.— Zenbat?

ZERBITZARIA.— Hamalau!

AMAIA.— Tori, 10, 12, ... eta 14.

ZERBITZARIA.— Zuk ordainduko duzu dena?

AMAIA.— Maria, ez dizut ezer entzuten!

ZERBITZARIA.— Erronda zuk ordainduko al duzu?



2.4 Ea zenbat dakizuen.



Taldean jarrita idatzi denboraren inguruan bururatzen zaizkizuen hitz guztiak. Ea zenbat idazten dituzuen. Osatu multzoak:

ASTEKO EGUNAK	HILABETEAK	EGUNAREN ZATIAK
<p><i>astelehena</i></p> <p>....</p>		

3- ENTZUN ONDOREN

3.1 Hau nahaste-borrastea!

  Erronda eskatzeko, esaldi hauek erabili dituzte audioan. Guk desordenatu egin ditugu; jar itzazu ordenan zure ondokoarekin:

Esaldiak	Ordena
-Hamalau euro. -Niri kalimotxoa! -Tori. - Niri vodka laranjarekin! - Bueno, zer jarriko dizuet? - Eta zuei? - Hemen dituzue edariak! - Eta niri tekila bat! - Zenbat da?	1

3.2 Zuk zer nahi duzu?

 Ikasi dituzuen formak erabilita, klasea bukatutakoan ondoko tabernara joan eta erronda euskaraz eskatu behar duzue. Bestela, gelan antzeztu.

